



## Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2020) euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko Gradu Amaierako Lanen Saria

### DEIALDIAREN XEDEA eta EBAZPENA

Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du, beste helburu batzuen artean, hala Mintzola Fundazioak nola Mikel Laboa Katedrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz-giroaren testuinguruan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberriaren urratsak garrantzizkoak dira; hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta **antzerkigintza, kantugintza, bertsolaritza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikergai gisa aukeratu izana baloratzea** da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik hain juxtu, deialdi honetan Gradu Amaierako Lanen kalitatea ebaluatu eta saritu da.

Denera 12 lan aurkeztu dira deialdi honetan. Denak irakurri eta aztertu ondoren, epaimahaiak Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Fundazioak bultzatutako GRAL Saria ondorengo lanari ematea erabaki du:

*“SORTZAILE KULTURALAK ERAGILE SOZIALAK? Errepertorio kulturalak: espazio, audientzia eta estetika berriak”, Leire Agate Amenabar Larrañaga egilea izanik.*

Donostia, 2020-11-18  
Mikel Laboa Katedra eta Mintzola Fundazioaren izenean  
Sin.: Jone M. Hernández García